

BIZTANLERIAREN INKESTA, JARDUERAREN ARABERA, 2005eko lehen hiruhilekoa

Langabezia-tasa %7an mantendu da eta pertsona okupatuak kopurua 2.500 pertsonatan jaitsi da Euskal Autonomia Erkidegoan 2005eko lehen hiruhilekoan.

Langabezia-tasa EB-25eko eta euroaren eremuko batez bestekoa baino ehuneko ia bi puntu txikiagoa da.

Euskal Autonomia Erkidegoko lan-merkatuko 2005eko lehen hiruhileko datuen arabera, 936.100 pertsona okupatu daude, orain hiru hilabete baino 2.500 gutxiago, Eustaten datuen arabera. Bestalde, langabezia-tasa %7koa da, 1985etik egon den txikiena.

2004ko laugarren hiruhilekoari dagokionez, langabetuen biztanleria eta langabezia-tasa mantendu egin dira. Okupatutako eta langabetutako biztanleriaren bilakaeraren ondorioz, aktibotasun-tasa %55,3 da.

Emakumezkoen langabezia-tasa zortzi dezima igo da

Emakumezkoen langabezia-tasa %8,7ra iritsi da, 8 dezima igoaz. Gizonezkoen langabezia-tasa, berriz, puntu erdi baino gehixeago jaitsi da (%-0,6). Gazteen langabezia-tasa zazpi dezima jaitsi da: 16 eta 24 urte arteko bost gazte aktibotatik ia bi langabezia daude (%18,2).

Euskal Autonomia Erkidegoko langabezia-tasa, 2005eko lehen hiruhilekoan, euro-eremuko herrietakoa baino ehuneko ia bi puntu txikiagoa da. EURSOTATen arabera (Europako Batasuneko Estatistika Bulegoa), 2005eko otsailean, eremu hartan, langabezia-tasa %8,9 zen. Europako Batasuneko tasa, 25 herrialdeekin, euro-eremukoaren berdina zen.

Langabezia dauden emakumeen kolektiboa (36.900 pertsona) 3.200 emakumetan igo da. Gizonezkoen artean, berriz, azken hiruhilekoan 3.200 hasi dira lanean. Orain 33.800 pertsona daude talde honetan. Langabeziak 45 urtetik gorako pertsonen taldean gora egin du: 2.200 langabetu gehiago daude.

Araba eta Gipuzkoan langabezia-tasek behera egin dute, baina Bizkaikoak zortzi dezima egin du gora


Langabetu kopurua 70.700 da lehen hiruhileko honetan. Araba eta Gipuzkoan behera egin du eta Bizkaian gora. Araban orain hiru hilabete baino 2.700 langabetu gutxiago daudela zenbatesten da: hiru lurraldeetako tasarik onena du honek (%3,4). Gipuzkoan 20.400 langabetu daude, orain hiru hilabete baino 1.900 gutxiago. Tasa %6,2koa da. Bizkaian, 45.500 langabetu daude; 4.600 pertsona gehiago beraz. Tasa %8,5eraino igo da.

Halere, Araban langabeziaren kopuruak hain txikiak direnez, zenbatespena ez da oso esanguratsua estatistikoki eta kontu handiz aztertu behar da.

Bizkaiak lanpostu-galera garbia bereganatu du 2005eko lehen hiruhilekoan

Okupatutako pertsona kopurua 936.100 da, hau da, orain hiru hilabete baino 2.500 pertsona gutxiago. Lurralde historikoen arabera, Bizkaiak lanpostu-galera garbia ia osorik bereganatu du, 2.400 lanpostu gutxiagorekin. Arabak ere 400 galdu ditu, eta Gipuzkoak, aldiz, 200 gehiago ditu. Generoari dagokionez, hobekuntza gizonezkoentzat izan da soilik. Aurreko hiruhilekoan baino 3.200 okupatu gehiago daude; emakumeek berriz aurreko emaitza baino okerragoa dute, 5.700 okupatu gutxiagorekin.

Biztanleria okupatuaren joera 2001etik. Euskal Autonomia Erkidegoa. (Milakotan)



Iturria: BJA berria, EUSTAT

Okupazioa batez ere zerbitzuen sektorean igo da, 13.600 lanposturekin

2004ko laugarren hiruhilekoan, zerbitzuen sektorean pertsona okupatuen kopurua igo dela nabarmendu behar dugu. 13.600 lanpostu gehiago daude. Eraikuntzan 11.800 lanpostu galdu dira, eta industrian, 4.600.

Okupazio-tasa (hau da, 16 eta 64 urte arteko pertsona-kopuru osoaren aldean okupatuta dauden pertsonen portzentajea) %64,9 da, orain direla hiru hilabete baino dezima bat gutxiago. Tasa hau, gizonezkoetan, %75,1 da, eta emakumezkoentzat, berriz, %54,4 baino ez.

Lurralde historikoen arabera, okupazio-tasarik handiena Gipuzkoakoa da: %67,2. Bi dezima igo da. Gero Araba dator, %66,9rekin, baina sei dezimako jaitsierarekin. Bizkaiak du tasarik txikiena, %63, 2004ko laugarren hiruhilekoa baino bi dezima txikiagoa.

2005eko lehen hiruhilekoan, biztanleriaren proiektzio berriekin, zenbatesten da guztira Euskal Autonomia Erkidegoko 760.200 etxetan bizi diren pertsonen herenak ez direla aktiboak. 15.900 etxetan, berriz, pertsona aktibo guztiak daude langabezian (guztien %2,1), hau da, aurreko hiruhilekoan baino 1.000 gehiago.

Emakumeek, Bizkaiak eta zerbitzuen sektoreek bereganatu dituzte azken urtean sortutako lanposturik gehienak.

Biztanleria okupatuak gora egin du azken hamabi hilabeteetan. 16.400 pertsona gehiago dira, hau da, %1,8 gehiago. Emakumeen artean okupazio-tasak gora egin du, ia-ia ehuneko bat eta erdian; gizonezkoen artean, berriz, puntu erdiko gorakada egon da. Lurralde historikoen arabera, Bizkaiko tasak 2004ko hiruhilekoaren aldean izan duen gehikuntza nabarmendu behar da (1,4 puntu).

Azken urtean, zerbitzuen sektorean 23.200 lanpostu garbi sortu dira. Aitzitik, lehen sektoreak pisua galdu du, eta eraikuntza egonkortu egin da.

Euskal Autonomia Erkidegoan langabezia-tasa puntu eta erdi baino zertxobait gehiago igo da azken urtean

Langabezia-tasa %1,6 jaitsi da azken urtean (%8,6tik %7ra). Beraz, 16.100 pertsona langabeziatik irten dira Euskal Autonomi Erkidegoan.

BIZTANLERIAREN INKESTA, JARDUERAREN ARABERA

	2005 eko 1. hiruhilekoa		Aldakuntza aurreko hiruhilekoaren aldean		Aldakuntza aurreko urteko hiruhileko beraren aldean	
	Milakoak	%	Milakoak	p.p.*	Milakoak	p.p.*
16 URTE ETA GEHIAGOKO BIZTANLERIA	1.820,8		-0,3		+2,7	
AKTIBOAK/ IHARDUERA TASA	1006,7	55,3	-2,6	-0,1	+0,2	-0,1
Gizonezkoak	580,8	65,6	+0,0	+0,1	-0,6	-0,3
Emakumezkoak	426,0	45,5	-2,5	-0,3	+0,9	+0,1
BIZTANLERIA LANDUNA/ ENPLEGU-TASA	936,1	64,9	-2,5	-0,1	+16,4	+1,0
Gizonezkoak	547,0	75,1	+3,2	+0,4	+6,1	+0,5
Emakumezkoak	389,1	54,4	-5,7	-0,8	+10,3	+1,4
Araba	139,3	66,9	-0,4	-0,6	+2,3	+0,7
Bizkaia	487,2	63,0	-2,4	-0,2	+11,0	+1,4
Gipuzkoa	309,5	67,2	+0,2	+0,1	+3,0	+0,6
Nekazaritza	13,1		+0,1		-5,3	
Industria	247,7		-4,6		+0,3	
Eraikuntza	78,5		-11,8		-1,7	
Zerbitzuak	596,8		+13,6		+23,2	
LANGABEAK/ LANGABEZI-TASAK	70,7	7,0	+0,0	+0,0	-16,1	-1,6
Gizonezkoak	33,8	5,8	-3,2	-0,6	-6,7	-1,1
Emakumezkoak	36,9	8,7	+3,2	+0,8	-9,4	-2,2
16 - 24	14,1	18,2	-1,0	-0,7	-4,5	-2,6
25 - 44	42,5	7,3	-1,2	-0,1	-12,3	-1,9
45 eta gehiago	14,1	4,1	+2,2	+0,5	+0,8	-0,0
Araba	4,8	3,4	-2,7	-1,7	-6,7	-4,4
Bizkaia	45,5	8,5	+4,6	+0,8	-3,5	-0,8
Gipuzkoa	20,4	6,2	-1,9	-0,5	-5,9	-1,7
Lehen enplegu bila	7,8	11,0	-1,9		-2,5	
EZ-AKTIBOAK						
EZ-AKTIBOTASUN TASA	814,1	44,7	+2,2	+0,1	+2,5	+0,1
ETXEBIZITZAK	760,2		+6,7		+16,5	
Aktibo 1 edo gehiagoko etxebizitzak	524,5	69,0	-19,8		-18,7	
- Guztiak okupatuak	464,1	61,0	-22,7		-5,7	
- Guztiak langabeak	15,9	2,1	+1,0		-4,1	
Aktiborik gabeko etxebizitzak	235,7	31,0	+26,5		+35,2	

+*p.p.+ = Aldea, ehunekotan.

Iturria: EUSTAT (behin-behineko datuak)

Oharra: Laginaren neurria eta diseinua, galdetegia (egungo premiei egokituz), lagunaren markoa eta orekaren tratamenduak ukitu dituzten aldaketak ekarri dituen operazioaren berrikuspen metodologikoa egin da, biztanleria-proiektzio berriak, 2001. urtean oinarriturik, gehituz. Informazio gehiago nahiz izanez gero, ikusi metodologiari buruzko oharra.

Informazio gehiago:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

 Tf:+34-945-01 75 00 Fax:+34-945-01 75 01 E-mail: eustat@eustat.es

 Harremanetarako pertsona: M^a José Santamaría Gallardo

Tf:+34-945-01 75 33 Fax:+34-945-01 75 01

 Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es